



HAUR ETA GAZTEEN
SUSTAPEN-ARLOA
(SAILA / ATALA)
UDALEAN



TEKNIKARIENTZAKO GIDOIA

GURE LAN-ESPARRUA

Atal honetan haurren eta gazteen sustapen-arloa azalduko dugu, orokorrean, herrian egiten dugunari testuingurua emateko.

Gure lan-esparruan herriko haur, nerabe eta gazteak ditugu xede, haientzako lan egiten dugu, haientzako berariazko politika publikoak eginez.

Hiru adin-tarte bereizten ditugu, bakoitza bi zentzutan hartuta:

- Berezko balioa, bereizgarriak eta esanahia dituen eta bere horretan gozatu behar den bizi-etapa gisa.
- Haurtzaro txikienetik heldutasunerako bidean norberaren autonomia garatzeko etapa garrantzitsu gisa

Horrela banatzen ditugu:

- Haurrak: 0 (edo 4) urtetik 12 urtera arte
- Nerabeak: 13tik 17 urtera arte
- Gazteak: 18 urtetik 29 urtera arte.

Haur, nerabe eta gazteen sustapena.

Gure lan-esparrua haur, nerabe eta gazteen sustapena da; hau da, bizitzako funtsezko etapa horietan haien garapen osoa bultzatzen dugu, horretarako bidean laguntzen diegu, haiekin lotura duten gaietan beren beharrei erantzuten diegu, eta bizi-aro horiek duten garrantziaren inguruan sentsibilizazio-lana egiten dugu. Ez da babesa, ezta prebentzioa ere, baina hirurak osagarriak dira.

Haurren, nerabeen eta gazteen arloa, aisia edo astialdiarekin lotu izan da maiz, bestela, hezkuntza ez-formalarekin, eta azkenik, batez ere gazteen kasuan, unean uneko beharrei eman beharreko erantzunarekin. Baina horiek bitartekoak dira. Sustapena bada hori guztia, baina ez da entretenimendu hutsaren ikuspegira mugatzen, ezta esku-hartze puntualetara ere. Hori baina zabalagoa da

Haur eta gazteen sustapenerako jardunbide eta eremuen bidez, guztientzako aukera-berdintasuna, herritartasun osoa, arduratsua, etikoa eta parte-hartzailea landu eta elikatzen ditugu. Izan ere, pertsonak hazten eta hezten ari diren urteetan behar-beharrezkoak dira funtsezko gaiak modu atseginean landuko dituzten eta horien inguruan sentsibilizatuko duten gune eta prozesuak: hala nola autonomia pertsonala, elkarbizitza komunitarioa, giza balioak eta herritarren partaidetza, berdintasunezko balio, jarrera eta jokabideak edota indarkeria matxistaren prebentzioa.

Hori horrela, ezinbestekoa da haur eta gazteen sustapenak herrian izan behar duen garrantziaz ohartzea, haien eskubideekiko ardura hartzea, hala politika publiko guztietan nola gizarte-bizitzan. Ildo horretan, haur eta gazteekin adeitsua edo haien aldekoa izango den ikuspegi bat sortu nahi dugu politika sektorial guztietan. Eta horretarako, ezinbestekoa da beren ahotsa erabakiak hartzen diren lekuetara iristea. Horregatik, Udaleko beste sailekin ere lan egiten dugu, zeharka, beren arloetan ere haurren, nerabeen eta gazteen ikuspegia kontuan hartua izan dadin.

■ Zerbitzuak

Gure arloan adin-tartearen arabera bereizitako zerbitzu publiko eta profesional propioak ditugu, gure herrian/auzoan haur, nerabe eta gazteentzat, eta baita beraien familientzat ere, erreferentzia garbia direnak.

Horien bitartez garatzen da gure esku-hartzea, zuzenean, hurbiletik, eta hezkuntza ez-formalaren eta aisia hezitzailearen bidetik. Gure zerbitzuetan aisialdirako eskubidea bermatzen diegu eta, bide batez, beren garapen pertsonala, emozionala eta soziala suspertuz. Gainera, zerbitzuen oinarrian giza balioak daude (berdintasuna, errespetua, solidaritatea, bizikidetzeta...).

Haur, nerabe eta gazteen sustapen-alorrean 4 zerbitzu mota bereizten dira, adinaren arabera. Hala ere, bata bestearen jarraipena dira, beren dinamikak ez du etenik batetik bestera. Dagokien adinera egokitzen dira.

- **Haurrentzako Zerbitzua (HZ).** 4/5-12 urte artekoentzat.
- **Nerabeentzako Zerbitzua (NZ).** 13tik 17 urtera bitartekoentzat.
- **Gazteentzako Zerbitzua (GZ).** 18 urtetik gorakoentzat.
- **Parte-hartzea Sustatzeko Zerbitzua (PSZ).** Herri txikiarentzat sortua da, eta hiru adin-tarteak hartzen ditu.

Zerbitzuak herriko haur, nerabe eta gazte guztientzat egiten du lan, bertara gerturatzen direnentzat eta ez direnentzat. Horregatik, garrantzitsua da ekipamendua bera baino gehiago dela ulertzea: barnean hartzen ditu herriko haur, nerabe eta gazteei zuzendutako politika eta erabaki guztiak (jarduerak, programak, ekintzak, esku-hartzeak, etab.) eta baita bertan lan egiten dugun profesionalak ere.

Zerbitzuetako langileak herriko haur, nerabe eta gazteen bidelagun gara. Horregatik, ezinbestekoak ditugu profesional guztion prestakuntza- eta kualifikazio-maila egokia. Azken batean, gure helburua da kalitatezko zerbitzu integralak eskaintzea.

Bestalde, inklusiboak izatea nahi dugu, guztion topaleku, elkarren artean desberdin direnen elkargune. Zerbitzuetako erabiltzaile eta hartzaileen aniztasunak era guztietako harremanak lantzeko aukera ematen du. Egokiera ezin hobea da elkarrekin bizitzen ikasteko.

Gainera, zerbitzuetan haurrak, nerabeak eta gazteak dira protagonistak. Beren iritzia kontuan hartzen dira, eta bertako erabakietan ere parte hartzen dute. Hala, beren autonomia, emantzipazioa eta inplikazioa garatzen dituzte, beren bizi-proiektu pertsonala eraikitzeko.

Haur eta gazteak komunitatean haztea eta bertan parte hartzea gure helburuetako bat izanik, ahalegina egiten dugu gure zerbitzuak ere herrian (edo auzoan) ondo txertatuta egon daitezen, eguneroko bizitzaren oinarritzko elementu izan daitezen. Hau da, herritarrek eta herriko elkarte edo sareek ezagutzea nahi dugu, haur, nerabe eta gazteekin zerikusia duen guztirako erreferente izatea. Era berean, herrirako garrantzitsuak diren alderdietan parte hartu eta ekarpenak egiten saiatzen gara.

■ Lantzen ari garen gaiak:

Oinarri hartuta, batetik, haur, nerabe eta gazteen egungo errealitatea aztertzeko egin diren hainbat ikerketa eta diagnostiko, eta bestetik, urteetan egindako gure ibilbideak nahiz gure eguneroko lanak erakutsitakoa, epe laburrean eta luzean garatzeko erronkak edo helburu batzuk ditugu jarrita. Gure arloan eta zerbitzuetan garatzen eta burutzen diren ekintza, jarduera, laguntza, prozesu, programa, kanpaina, etab. guztiak horietako bat edo batzuk betetzera bideratuta daude, modu batean edo bestean.

ERRONKAK	JARDUN-EREMUAK
<ul style="list-style-type: none"> • Haur, nerabe eta gazteen ongizatea sustatzea 	<ul style="list-style-type: none"> · Ongizate eta osasun fisiko eta mentala · Hezkuntza emozionala · Indarkeriaren prebentzioa · Aisialdi aktiborako eskubidea
<ul style="list-style-type: none"> • Haur, nerabe eta gazteen aukera-berdintasuna bultzatzea 	<ul style="list-style-type: none"> · Aniztasuna eta inklusioa · Gizarte-kohesioa · Kulturartekotasuna · Genero-berdintasuna · Hezkidetzak · Sexu-hezkuntza · Kultura digitala · Emantzipazioa · Zeharkako jarduerak enpleguaren arloan · Zeharkako jarduerak prestakuntzaren arloan · Zeharkako jarduerak etxebizitzaren arloan
<ul style="list-style-type: none"> • Haur, nerabe eta gazteen herritartasun aktiboa erraztea, haien parte-hartzea bultzatuz 	<ul style="list-style-type: none"> · Euskararen erabileraren sustapena · Herritartasun aktiboa eta parte-hartzea · Herritartasun digitala · Gizarte-ekintzailtza eta komunitate-dinamizazioa · Jasangarritasuna · Bizitzarako gaitasunak · Adierazpen kultural eta artistikoa